

Laburbira

Euskarazko film laburren XVIII. zirkuitua - 2021
Apirilaren 26tik maiatzaren 30era

ATERPEAN ATERI



Covid 19ren osasun-krisia dela eta konfinamendua dekretatu ondoren, Mikelek monotonia behartuan murgilduta bizi du eguna. Baina garai hobeen oroitzapenak eta abentura berrien ilusioak ezohiko egoerari aurre egiteko behar den indarra emango diote.

Fitxa teknikoa

Zuzendaria: Ruben Crespo

Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolan argazkia ikasi ondoren, Bostnanen hasi zuen bere ibilbide profesionala, baina laster eta urpekari gisa zuen prestakuntzari esker, muturreko kirolen ibilbidea bideratu zuen. Besteak beste, honako herrialde hauetan egin du lan: suda, australia, Islandia, Nikaragua, Indonesia... Hau da bere leneko laburmetraia ekoiztetxe batekin.



NIGANDIK



Aitziberren aitak hirira bidaiatzen du egunero, eraberritzen ari diren bere haurtzaroko etxea babestu nahian. Egoera honek, bere osasun arazoekin batera, ordurarte espresatzera ausartu ez den kezka eta beldurrak kanporatuko ditu.

Fitxa teknikoa

Zuzendaria: Imanol G. Gurrutxaga

Gidoilaria: Imanol G. Gurrutxaga,

ekoizleak: Ander Sagardoy, Iñigo Asensio

Antzezleak: Aitziber Garmendia, José Ramón Soroiz, Elena Irureta

Imanol G. Gurrutxaga

1997an Lazkaon jaioa, 16 urte zituenetik dabil murgilduta zine munduan. 2017az geroztik, lan profesional desberdinak burutu ditu: besteak beste, Iker Lauroba musikariaren *Berriro* (2017), *Ile Urdinak* (2018) eta *Etsien balsa* (2018) abestien bideoklipak. Horrez gain, 2018an bertan, bere lehen laburmetraia profesionala burutu zuen: **Ezuste**ko **talka** Jose Ramon Soroiz eta Aitziber Garmendiak protagonizatutako thriller dramatikoa idatzi, zuzendu eta ekoitzi zuen, Korima Filmsekin batera. **Nigandik** bere bigarren laburmetraia profesionala izan da. Aurreko esperientzia pozgarrian bidelagun izan zituen talde artistiko eta teknikoko hainbat lagunekin berriro batu eta orain arte garatu duen proiektu pertsonal eta sendoena osatu du. 2020an estreinatu berri da eta Zinebin aukeratua izateaz gain, Lekeitioko Zine Bileran Gidoi Onenaren Saie eta EITBko Publikoaren Saria eskuratu ditu. Honez gain, 2022ra begira, bere lehen luzemetraia izango denaren lehen gidoiean ari da lanean.



GAME OVER



Familia bat talka autoetan dabil dibertitzen.., joko borroka bilakatu arte.

Fitxa teknikoa

Zuzendaria: Ilune Diaz,

Antzezleak: Sonia Escaluela, Bernat Muñooz, Raquel Dalmases.

Ilune Diaz

Ilune Diaz Donostin jaio eta Bartzelonan bizi den zuzendari gazte bat da. Azken urteotan hainbat laburmetrai egin ditu tematika sozialetan enfokatutako lanak gehienbat. Orain bere lugarren laburmetraian eta dokumental baten ekoizpenean sarturik dabil.



ILUNABARREAN ESAN



2002 urtea da Iruñean eta ezker abertzaleko Segi antolakundea ilegalizatu berri dute. Urko gazte antolakunde horretako kidea da Jonekin batera, bere lagunik onena. Bizitza publiko eta pribatuaren artean banatzen du bere bizitza Urkok. Publikoan militante eredugarria da, langilea.

Pribatuan, ezkutuko desioak asetzen ditu autobus geltokiko gizonen komunitan zein Takonerako txoko ilunetan. Bere bizitza sozial eta politikoa sexualarekin nahastuko da erabat. Egoera honek bere harreman eta erabakietan eragingo du, inguruko dena zalantzan jarriaz.

Fitxa teknikoa

Zuzendaria: Xabier Vallina

Zuzendari laguntzailea: Ekhiñe Aizkorbe

Kamera eta argazki zuzendaria: Irene Zaldua

Soinua. Sara Alonso

Ekoizpena: Irati Egibar eta Julene Etxauri

Ekhiñe Aizkorbe, Sara Alonso, Irati Egibar, Julene Etxauri, Xabier Vallina eta Irene Zaldua

Araba, Gipuzkoa eta Nafarroakoak gara. Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko graduko proiektu bezala sortzen den lana da, unibertsitatez kanpoko kolaborazio eta laguntzak izanik.

BABARRUN TXAPELKETA



Aurtengo munduko babarrun txapelketa Gasteizen ospatzen da eta hainbat berezitasun ditu.

Fitxa teknikoa

Zuzendaria: Andoni Mtz de Madina eta Julen de la Serna

Gigoilaria: Andoni Mtz de Madina

Soinua: Unai Portilla

Aktoreak: Iratxe Aguilera, Adrian Angulo, Andoni Mtz de Madina, Ibai López, Maider Abad, Maite Errasti, Eneko Saenz de la Maza

Andoni Mtz de Madina

35 urteko gazteiztarra. 4 lagunekin Cosa de Tr3s webseriea sortu eta 2013tik hona hainbat laburmetrai eta sketchak.



DATSEGIT



Datsegit-eko protagonista gela batean aurkitzen da. Bapatean ihes egitea erabaki, baina zerbaitek jatorrizko etxera lotuta mantenduko du. Ihesaldiak, atzean utzi nahi duena zer den eta zeren bila dabilen ezagutzera garamatza.

Fitxa teknikoa

Zuzendaria eta aktorea: Aitor Arruti

Gidoia eta edizioa: Aitor Arruti

Zuzendari laguntzailea: Nika Hrindova

Kamera #1: Nika Hrindova

Kamera #2: Peter Slu

Musikaria: Aitor Arruti

Soinu ingeniaria: Dennis Tuomi

Aitor Arruti Agirreurreta

Aitor Arrutik (1993, Andoain) Ingeniaritza Mekanikoa ikasi zuen Arrasaten lehenik eta Kopenagen ondoren. Dinamarkan bizi da 2015az geroztik. Gaztetatik ibili izan da musika, argazkilaritza eta bideogintzan proiektu desberdinak lantzen. Bere azken lanek kutsu kontzeptual bat dute, eta ikuslea ausnarketara gonbidatzen duten sinboloen erabilera da bere estetikaren oinarri nagusia.



NIRE EGUNEROKO MAITEA



2011ko urria. Hiru emazte belaunaldi familia-maitasun loturak atxikitzen dira, Euskal Herriko gatazka armatuaren bukaera gogorra izanik ere. Gertakariak Amaia, 6 urteko neskatua, gainditzen dute eta bere istorioa berriz asmatzen du, berreraikitze konpultsibo eta inozentearekin.

Fitxa teknikoa

Zuzendariak: Ximun Fuchs, Manex Fuchs, Eñaut Castagnet

Gidoia: Ximun Fuchs

Edizioa: Eñaut Castagnet

Soinua: Iñigo Etxarri

Aktoreak: Aiur Elizondo San Sebastian, Arantxa Hirigoyen, Mari Koxepa Hirigoyen, Manex Fuchs, Ander Lipus, Gotzon Sanchez, Jon Gaubeka

Ekoizpena: Gastibeltza Filmak, Axut, Kanaldude, Eny Production, Adabaki Ekoizpenak


Ximun Fuchs, Manex Fuchs eta Eñaut Castagnet

Ximun Fuchs (1974)

Bordeleko fakultatean antzerkia ikasi zuen eta 1994tik Europako errepideak zeharkatzen ditu. 2018an, *“Non”* filmarekin zinema osagai bat ireki zuen bere ibilbide artistiko atipikoan. Aktorea, zuzendaria, idazlea, musikaria, ekoizlea, batez ere antzerkian eta zineman sortzea eta antzeztea du helburu.

Manex Fuchs (1975)


Aktorea, 1994tik sorkuntza askotan parte hartu du, aktore edo zuzendari gisa. Le Petit Théâtre de Pain konpainia sortu zuen eta duela gutxi ‘Axut! euskal antzerkian zeresana du. Gainera, Gastibeltza Filmak zinema ekoizpen eta banaketa egiturako kidea da.



Eñaut Castagnet (1985)

Zuzendaria, muntatzailea, argazki zuzendaria. Bere lanen artean, *“Non”* (fikzio luzea, Aldudarrak Bideo – Le petit theatre de Pain, 2017), *“Berria 10 urte”* (Dokumentala), *“When I was a Child”* (Dokumentala) eta *“Art in House”* (Telesaila, 2015).

AGUR



6. Kameratoiaren lan irabazlea da *Agur* laburmetraia. Txikitako lagunaren heriotz misteriotsua ikertzeko asmoarekin bueltatzen da bere jaioterrira protagonista. Nola hil zen? Zer gertatu zen?

Fitxa teknikoa

Zuzendariak: Iñigo Acha

Gidoia: Iñigo Acha, Javi García, Aihini Urresti, Alex Latxaga

Produkzioa: Iñigo Acha, Javi García, Iraide Narbaiza, Ahini Urresti, Ander Uriondo.

Aktoreak: Ahini Urresti, Alexander Latxaga.

Iñigo Acha Gómez

Kazetaritzan lizentziatua, Iñigo Acha eskualdeko Oizmendi Telebistan ari da lanean, Urdaibai eskualdean, Bizkaian. Modu amateurrean, eta eskualdeko hedabide horretan egiten duen lanak horretarako aukera ematen dionean, genero fantastikoko eta beldurrezko film laburrak egiten ditu, **Spookypheria Productions** irabazi asmorik gabeko kultur elkarteko buru izateaz gain; besteak beste, Bermeoko Beldurrezko eta Zinema fantastikoko Jaialdia (GOREFEST) eta Halloween Metal Fest musika jaialdia antolatzeaz arduratzen da.

